



Rocka puntua!

Irazu, Alberto

ISBN: 978-84-9172-014-0
Saio eta Testigantza, 195
30 argazki eta irudi koloreetan
2017. urtea / 15 x 21 cm / 240 or.

18,00€

Zestoa, 1964ko martxoak 19. Bertso saioa Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Basarri eta Uztapiderekin. Halako batean, Joxe Mari Iriondo gai-jartzaileak puntua jarri dio Uztapideri: «ikasi al dituzu rock and roll eta twist?». Uztapidek kopeta zimurtu du: oin deserosoak baino zerbait gehiago dira hitz arrotz horiek, bizimodu txarrarekin lotuta daude, atzerritarrek ekarritako ohitura berri gaiztoekin.

Zer ez da aldatu ordutik hona! Uztapidek imajinatu ezineko parabola osoa gertatu da berrogeita hamar urteotan: lehenbizi euskara sartu zen rock eta twist izeneko lurralde arrotzetan, ondoren bertsoa barneratu zen hor barruan, eta behin bertsoa doinu horietan ezkutatuta, pop rock kulturako abesti bakan batzuk bueltan etorri dira bat-bateko bertsolaritzara.

Bertsoa eta rockaren arteko harremanari buruzko saiakera duzu eskuartean, irakurle: batzutan kronika itxuraz, bestetan fikzioarekin jolasean, abestietatik bertsoetara eta bertsoetatik abestietara saltoka dabilen hausnarketa-lan irudimentsua da honakoa.

Hitzaren kirol nazionala da bertsolaritza, erritmoaren alberdania internazionala rocka.

Hitzaren inguruan dantza egiten du batak, erritmoaren inguruan besteak.

Hitza eta erritmoa: hausnarketa ugaritarako ematen duten bi su.

• • • •



ALBERTO IRAZU (Andoain, 1970)

Gizarte eta komunikazio zientzietan lizentziatua. Kazetari aritua hainbat komunikabidetan: *Argia*, *Iruxulo Astekaria*, *Gaztezulo*, *Euskaldunon Egunkaria*, *Berria*, *Euskadi Irratia*... 80ko hamarkadan Euskal Herriko eta atzerriko hamaika

musika talde ikusi zituen Andoaingo gaztetxe zaharreen, eta bertatik bertara parte hartu zuen mugimendu hartan Karkaxa hardcore taldearen partaide gisa –*Txerokee* bilduma, (askoren artean, Elkar, 1990), maketa (1993)–. Lehen esperientzia haren ondoren sortutako taldeak dira Naun –*Eta legez landako gure mintzairan solastuko* (Zaunka Records, 1998), *Hau da ene ondasun guztia* (askoren artean, Txalaparta, 1999)– eta *Captain Nemo -Korrontearen kontra, urpekari bat* (Metak, 2004), *Gure Irratia, zure rokanrolla* (askoren artean, Gure Irratia, 2005) eta *1280 Euskal Hiria* (Autoprodukzioa, 2007).



www.pamiela.com • 948 326 535 • soltxate@pamiela.com